

		ESP. KODEA.	2017IDBO0001
ESPEDIENTEA	PLAN OROKORRA KONTRATATZEA		
TITULARRA	BEASAINGO UDALA		
TOKIA			

BEASAINGO HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN HELBURUA.

Kontratuaren helburua Beasaingo udalerriko Hiri-antolamendurako Plan Orokorra plegu honen, Baldintza Teknikoen pleguaren eta espedientean agertzen den gainerako dokumentazioaren (kontratuzko izaera izango duena) arabera idazteko zerbitzuarena izango da.

Kontratuaren xedeari dagokion CPV nomenklaturaren kodea 71200000-0 da.

Kontratuaren kategoria: SPKLTBko II. eranskinaren hamabigarrena

2.- GAUZATZE-EPEA.

Lanak idazteko eta aurkezteko fase eta epe batzuk finkatuko dira, esleipendunak murriztu egin ditzakeenak bere eskaintzako proposamen metodologikoan. Jarraian, laburpen bat azaltzen da (baldintza teknikoen 3. atalean garatua):

1. fasea: Hirigintzarekin lotutako informazioa. Gehienez LAU HILABETEKO iraupena izango du, lanak esleitzeko kontratua sinatzen den egunetik zenbatzen hasita. Hura amaituta, kontratistak aurretiko fasea azaldu eta entregatuko dio Alkateari edota gobernu-taldeari eta, ondoren, Plangintzaren Aholku Kontseiluari.

2. fasea: Aurrerakina egitea. Gehienez LAU HILABETEKO iraupena izango du, ingurumen-organoaren erreferentziazko agiria jasotzen denetik hasita. Hura amaituta, Alkatearekin edota gobernu-taldearekin elkartuta eta, ondoren, Plangintzaren Aholku Kontseiluarekin elkartuta, kontratistak Plan Orokorraren Aurrerakina osatzen duen dokumentazioa entregatuko du.

3. fasea: Aurrerakinarekiko alegazioei arrazoi bidez erantzutea, eta herritarren partaidetzarako prozesua aztertzea. Behin jendaurrean ipini eta herritarren partaidetzarako epea amaituta, alegazioei erantzuteko epea HILABETE ETA ERDIKOA izango da, aurkeztutako arrazoibideak jasotzen direnetik zenbatzen hasita. Gainera, epe horretan, erredakzio taldeak jendaurreko saioetan emandako iritziak jasotzen dituen txosten laburtua igorriko du.

4. fasea: Plan Orokorra egitea. Gehienez, SEI HILABETEKO iraupena izango du, kontratistari Udalak osoko bilkuran irizpideak eta helburuak onartu direla jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita. Hura amaituta, Alkatearekin edota gobernu-taldearekin elkartuta eta, Plangintzaren Aholku Kontseiluarekin ere elkartuta, kontratistak Plan Orokorra osatzen duen dokumentu guztiak azaldu eta entregatuko ditu.

5. fasea: Plan Orokorraren hasierako onespenerakiko alegazioei arrazoi bidez erantzutea, eta herritarren partaidetzarako prozesua aztertzea. Aurretiko izapide administratiboa eginda eta ondoren hasierako onarpena eman, jendaurrean ipini eta herritarren partaidetza burututa, jendaurreko arrazoibideei erantzuteko epea BI HILABETEKOA izango da aurkeztutako arrazoibideak jasotzen direnetik zenbatzen hasita. Gainera, epe horretan, erredakzio taldeak jendaurreko saioetan emandako iritziak jasotzen dituen txosten laburtua igorriko du.

6. fasea: Behin-behineko Onarpenerako Agiria. Fase honetan onartutako dokumentazioa bateratu egingo da. Hala, dokumentazio hori entregatzeko BI HILABETEKOA epea izango da udal akordioa jasotzen den egunetik zenbatzen hasita, eta LAU HILABETEKOA baldin eta berriro hasierako onarpenera eramateko akordioa hartzen bada.

7. fasea: Behin Betiko Onarpenaren Testu Bategina. Gehienez BI HILABETEKOA iraupena izango du, erredakzio taldeak EHLAB batzordearen txostena jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita.

Kontratastaren atzerapentzat hartuko da behin aipatu epeak igarotzen direnean, Administrazioaren alde aurretiko oharpenaren beharrik izan gabe.

3. KONTRATUAREN AURREKONTUA ETA GEHIENEZKO PREZIOA.

Kontratuaren aurrekontua 340.000,00 eurokoa izango da gehi 71.400,00 euro BEZ (% 21) kontzeptuan. Horrenbestez, guztira, 411.400,00 eurokoa.

Prezioa hobetu egin dezakete lizitatzailleek beherantz.

4. FINANTZAKETA. AURREKONTU-PARTIDA

Kontratuaren prezioaren % 20,18 ordaintzeko 2017ko Aurrekontuko 5000.642.151.00.01 aurrekontuko partidan aurrekontuko diru-izendapen bat dago. Gainera, gainerako portzentajeari dagokionez, konpromiso-kredituak daude 2018., 2019. eta 2020. urteetarako.

5. ORDAINKETA MODUA.

Ordainketa kontratua sinatzean egingo da eta hurrenez hurreneko lanen entrega partzialen ondotik, jarraian adierazitako portzentajeetan:

- 1.- % 5 administrazio-kontratua formalizatzean.
- 2.- % 15 lehen faseari dagokion dokumentazioa entregatu eta onartu ondoren.
- 3.- % 10 bigarren faseari dagokion dokumentazioa entregatu eta onartu ondoren.
- 4.- % 5 hirugarren fasea burutu ondoren.
- 5.- % 35 laugarren faseari dagokion dokumentua entregatu eta onartu ondoren.
- 6.- % 5 bosgarren faseari dagozkion lanak entregatu eta onartu ondoren.
- 7.- % 5 seigarren faseari dagokion dokumentua entregatu eta onartu ondoren.
- 8.- % 10 edo, hala badagokio, % 15 informazio publikoa berriro egitea beharrezkoa izan ez bada, zazpigarren faseari dagokion dokumentua egin eta onartu ondoren.

9.- Gainerako zenbatekoa administrazio-bidea erabiliz Planaren behin betiko onarpenaren aurka jarritako balizko errekursoen txostena egin ondoren edo haiek jartzeko epea igaro ondotik ordainketako da.

Ordainketa legezko epeetan egingo da, behin fakturek teknikariaren eta dagokion kargu politikoaren oniritzia jaso ondoren.

6. PREZIOEN BERRIKUSPENA.

Ez dago halakorik.

7. BEHIN BETIKO BERMEA.

Behin-behinekoa: Ez.

Kontratuaren esleipenduna, hartutako betebeharrak beteko dituela bermatze aldera, esleipenaren zenbatekoaren % 5aren baliokidea (BEZa kontuan hartu gabe) den behin betiko berme bat eratzera behartuta dago.

Behin betiko bermea eratzeko epea hamar egun balioudunekoa izango da, SPKLTBko 151. artikuluan ezartzen den eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta SPKLTBko 96. artikuluan ezarritako edozein bide erabiliz eratu ahal izango da. Epe horretan bermerik eratzten ez bada esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, esleipenduna behin betiko esleipenetik aterako da, beste izapiderik gabe. Kasu horretan, kontratua puntuazio gehien lortu duen hurrengo lizitatzailerari esleitu ahal izango zaio.

Bermearen itzulketa, erabatekoa edo hala badagokio partziala, SPKLTBko 102. artikuluan ezarritakoari jarraiki egingo da, behin bermearen epea amaitu ondoren eta esleipendunak kontratuzko betebeharrak guztiak bete ondoren.

8. KONTRATUA GAUZATZEA.

Baldintza berezi modura, esleipendunak arrisku profesionalengatik kalte-ordainen aseguru bat (gutxienez, 250.000,00 eurokoa) aurkeztea eskatzen da, hurrengo bermeok barneratuz:

- Ustiatzeko erantzukizun zibila.
- Dokumentu eta espedienteei eragindako kalteak barneratzen dituen erantzukizun zibil profesionala.
- Lan-istripuengatik erantzukizun zibila.

Baldintza horiek funtsezko kontratuzko betebeharrak izaera dute, beraz, SPKLTBko 118.2. artikuluan aurreikusten denaren arabera, baldintza horiek ez betetzea nahikoa arrazoi izango da kontratua eteteko 223.f artikuluan adierazten denez.

Kontratua kontratistaren arrisku eta kontura gauzatuko da.

Kontratua plegu honetan eta, hala badagokio, espedientera atxikitako zehaztapen teknikoetan barneratzen diren klausulen arabera gauzatuko da. Administrazioak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko du hori eta eskuduntza horiek idatziz zein ahoz beteko ditu.

Kontratistari edo haren baitako pertsonari egotz dakizkiokeen ekintza edo ez-betetzeengatik kontratuaren jardun egokia arriskuan jarriko balitz, Administrazioak kontratuaren jardun egokia eskuratu edo berrezartzeko beharrezkotzat ikusten dituen neurriak hartzea eska dezake.

9. KONTRATISTAREN LAN-BETEBEHARRAK.

Kontratista lan arloan, gizarte segurantzaren, eta laneko segurtasun eta higiene arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzera behartuta dago.

10. KONTRATUA BETETZEN DUEN BITARTEAN KONTRATISTAK HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEN GAINEAN DUEN ARDURA.

SPKLTBko 214. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratista izango da kontratua gauzatzean egin beharreko lanen ondorioz sorrarazten diren kalte eta galeren erantzulea.

11. KONTRATUA ALDATZEA.

Administrazioak aukera izango du kontratua aldatzeko, interes publikoko arrazoiak, premia berrien edo ustekabeko arrazoiak ondorioz, eta kontratistak ez du kalte-ordainak jasotzeko inolako eskubiderik izango.

12. HARRERA ETA BERME-EPEA.

Kontratuaren xede den prestazioa amaitu eta, gehienez, hilabeteko epean, haren harrerarako ekitaldi formal eta positiboa egingo da (baldin eta Azalean beste epe bat xedatzen ez bada, edo prestazioen izaera dela medio harrera-akta beharrezkoa ez bada). Ekitaldira kontratuaz arduratzen diren udal langileak eta kontratista bertaratuko dira eta udal kontu-hartzailetzari dagokion jakinarazpena egingo zaio, egoki irizten badu, ekitaldira bertara dadin, egokia den Harrera-akta taxutuz.

Onarpen formala egiten den egunetik hasita urte bateko epea ezartzen da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko eta Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorrean aurreikusitako ondorioetarako bermetzat.

Berme-epe honetan kontratista izango da burututako lanketa edo prestazioetan sor daitezkeen akats edo kalteen erantzulea.

Epe hori Administrazioaren aldetik inolako ohartarazpenik gabe igarota, kontratistaren erantzukizuna amaitutzat emango da.

13. EZ-BETETZEEN ONDORIOZ KONTRATISTARI EZARRITAKO ZIGORRAK.

Kontratistari ezarritako zehapenak aplikatzeko araubidea jarraian adierazten dena izango da.

A) KONTRATUA BETETZEKO EPEEI DAGOZKIENAK.

Kontratistak, berari egotz dakizkikeen arrazoiak direla medio, kontratua betetzeko epealdian atzerapenik izango balu, bai guztizko epean, eta hala badagokio, epe partzialetan, Administrazioak kontratua etetea erabaki dezake, bermearen galera ezarriz, edo eguneroko zigorrak ezartzea erabaki dezake, eguneko 0,20 euroko proportzioan kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko.

Atzerapenen ondoriozko zehapenak kontratuaren prezioaren % 5eko multiploa hartzen duten aldiro, kontratazio organoak kontratua eteteko ahalmena izango du, edo prestazioarekin jarrai dezatela erabakitzekoa, zigor berriak ezarrita.

B) PRESTAZIOEN GAUZATZE PARTZIALEI DAGOZKIENAK.

Kontratistak, berari egotz dakizkikeen arrazoiak direla medio, kontratuan zehazten diren zerbitzuen gauzatze partzialak beteko ez balitu, Administrazioak erabaki dezake kontratua etetea edo kontratuaren prezio osoaren % 10aren baliokide den zigorra ezartzea.

Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak behar bezala betetzen ez badira edo betetzen ez badira, edo kaudimen arloan ezarritako konpromisoak betetzen ez badira, Administrazioak aukera izango du hurrengo zehapen-araubidea aplikatzeko:

- Prestazioak zati batean betetzen ez baditu, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10aren baliokide den zigorra ezarri ahalko du.
- Baldintza Teknikoen Pleguko 3.2.4. klausulan ezartzen diren gizarte edo ingurumen arloko baldintzak betetzen ez badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10aren baliokide den zigorra ezartzeko aukera izango du.
- Kaudimena Baldintza Teknikoen Pleguko 4. klausulan eskatzen diren bitarteko pertsonalekin betetzeko beharrezakoa betetzen ez bada, Administrazioak kontratuaren aurrekontuaren % 10aren baliokide den zigorra ezartzeko aukera izango du.

14. KONTRATUA ETETEKO ARRAZOIAK.

Zerbitzuen kontratua eteteko arrazoiak dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 223 eta 308 artikuluetan ezartzen direnak.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK.

Hona administrazioak izango dituen eskumenak: kontratua interpretatzea, hura betetzeak sor litzakeen zalantzak argitzea, interes publikoko interesak direla medio hura aldatzea eta, hura etetea adostea eta horren ondorioak zehaztea. Hori guztiori, betiere, Sektore Publikoko Kontratuen Legeari eta bertako Araudian ezarritako baldintza eta ondorioen barruan eta horien arabera.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

16. ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK.

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da.

Honakoak dira kontratuaren esleipenerako oinarri moduan erabili beharreko irizpideak, garrantziaren eta ematen zaien haztapenaren arabera goitik behera emanak:

16.1. Matematikoki zenbatu ezin diren irizpideak (B gutun-azala):

- a) Memoria-diagnosia: gehienez, 45 Puntu.
- Egungo egoeraren azterketa, arazo garrantzitsuenak adieraziz. Atal honetan udalerrian ebatzi gabeko arazoen detekzioa nahiz udal araudian bertan ebazteko gabeziak, kontradikzioak edota bestelako alderdiak balioetsiko dira (17 puntu).
 - Udalerraren egoera aplikagarri diren udalaz gaindiko arauen ikuspegitik (10 puntu).
 - -Datozen urteetarako kontuan hartzeko esku-hartzeko proposamen eta jarraibideak, hala dagoeneko garatutako eremuetan nola garatzeke daudenetan, edo ez urbanizagarrietan (10 puntu).

- Egungo egoerari buruz egindako azterketaren eta esku-hartzeko planteatutako proposamen eta jarraibideen arteko koherentzia (8 puntu).

Aurkezteko dokumentazioan dokumentu grafiko eta idatzizkoa barnera daiteke. Gehienez, 2 aurpegitan idatzitako 10 orriko dokumentu bat aurkeztu ahal izango da, hizkiaren gutxieneko tamaina arial 10 izanik eta formatua A4 izanik, eta 8 plano. Planoen kasuan, gehienez A0 tamaina finkatzen da. Gehienez ezarritako orrialde kopuruaren edo elementuen gainetik, hurrenez hurren, 5 orrialdeko, edo zatiko, edo plano bakoitzeko -2 puntuko zigorra aplikatuko da.

b) Metodologiaren proposamena: gehienez, 25 Puntu.

Horretarako, lanak gauzatzeari buruzko Plan bat eratuko da, honakoak barneratuz:

- Lanetan erabiliko den metodologia azaltzen duen memoria (Udaletxe kanpoan nahiz barnean egiteko lanen antolaketa, koordinazioa azpikontratutako enpresekin, kudeaketa arloko konpetentziak dituzten erakundeekin, etab.), lizitatzailerak egiteko konpromisoa hartu duen guztia argi eta zehaztasunez adierazita, herritarren partaidetza barne (9 puntu).
- Lanak gauzatzeko egutegi osoa, pleguan ezarritako epe partzialekin bateragarria. Atal honetan lan ezberdinak gauzatzeko epe partzialen programazioa eta estimazioa balioetsiko dira. Horretarako, eskaintza metodologikoari dagokionez, plegu honetan barneratutako hobetzea eragiten duten programatutako lanen hileko estimazioa eta metatua egingo da (9 puntu).
- Parte hartu behar duen lantaldearen deskribapena, hala badagokio, azpikontratatea aurreikusten den kontratuaren zatia adieraziz. Bertan portzentajea adierazi beharko da eta azpikontratistaren izena edo enpresa-profila identifikatu beharko da. Hori guztiori, faseka zehaztuta (7 puntu).

Dokumentazioan dokumentu grafiko eta idatzizkoa barnera daiteke. Gehienez, 2 aurpegitan idatzitako 10 orritan garatu beharko da, hizkiaren gutxieneko tamaina arial 10 izanik eta formatua A4 izanik. Elementu, grafiko edo taularen bat argitasun gehiagoz islatzeko asmoz orrialde kopuru handiagoa beharrezkotzat jotzen bada, gehienez, 2 orrialde onartuko dira, A3 tamainan. Gehienez ezarritako elementu kopurua gainditzen denean, 5 orrialde edo zati bakoitzeko, -2 puntuko zigorra aplikatuko da (20 A4 eran eta 2 A3 eran).

c) Herritarren partaidetzarako proposamen eta mekanismoak, plegu teknikoaren 8. artikuluan xedatutakoaren osagarri. gehienez, 10 Puntu.

Dokumentazioan dokumentu grafiko eta idatzizkoa barnera daiteke. Gehienez, 2 aurpegitan idatzitako 6 orritan garatu beharko da, hizkiaren gutxieneko tamaina arial 10 izanik eta formatua A4 izanik. Elementu, grafiko edo taularen bat argitasun gehiagoz islatzeko asmoz orrialde kopuru handiagoa beharrezkotzat jotzen bada, gehienez, 2 orrialde onartuko dira, A3 tamainan. Gehienez ezarritako elementu kopurua gainditzen denean, 5 orrialde edo zati bakoitzeko, -2 puntuko zigorra aplikatuko da (12 A4 eran eta 2 A3 eran).

16.2. Matematikoki zenbatu daitezkeen irizpideak (C gutun-azala):

a) Eskaintza ekonomikoa: gehienez, 20 Puntu.

Eskaintza ekonomikoa atxikitako formularekin bat etorri balioetsiko da. Formula horren arabera gehienezko puntuazioa (20 puntu) emango zaizkio eskaintza ekonomiko baxuenari, baldin eta neurritz kanpokotzat jotzen ez bada, eta eskaintza horren baliotik behera daudenei, eta gutxieneko puntuazioa (0 puntu) emango zaio lizitazio-aurrekontuari.

Muturreko balio horien artean dauden aurrekontu-eskaintzen balioespena dagozkion muturreko balioen interpolazio lineala eginez lortuko da, kontuan hartuz honakoa:

P.L.	Lizitazioaren aurrekontua
O.E.M.B	Neurritz kanpokoa ez den eskaintza ekonomiko baxuena
O.E.x	x enpresaren eskaintza ekonomikoa
V.max.	Gehienezko balioespena
Vx	x eskaintzaren balioespena, emaitza hau izanik:

$$Vx = V. \max \times [(PL - Oex)/(PL - OEMB)]$$

Neurritz kanpoko balioak dituzten eskaintzak: Neurrigabekotzat joko dira aurkeztutako proposamen guztien behe-portzentajeen batez besteko aritmetikoen azpitiko portzentajezko 10 puntuko behe agertzen duten eskaintzak. Edonola ere, portzentajezko 20 unitatetik gorako beheak neurritz kanpokotzat joko dira.

Aurkezteko modua: Pleguaren I. eranskineko eredua.

Bi proposamen edo gehiagok puntuazio bera jasotzen dutenean, esleipenerako lehentasuna emango zaio "Memoria-diagnosia" atalean puntuazio gehien jaso duen lizitatzailerari. Berdinketa mantentzen bada, "metodologia" atalean puntuazio gehien jaso duen lizitatzailerari emango zaio lehentasuna, eta ondoren prezioari erreparatuko zaio. Berdinketak jarraitzen badu, zozketa egingo da.

17. GAITASUNA ETA KAUDIMENARI DAGOZKION GUTXIENEO BALDINTZAK.

Kontratazio-prozedura honetan gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural nahiz juridikoei parte har dezakete, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatuz, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 60. artikuluan ezartzen dituen kontratatze debekurik ez badute. Kaudimena 18. klausulan ezartzen denaren arabera egiaztatu eta ebaluatuko da.

Halaber, beren kabuz edo haiek baimendutako pertsona baten ordezkariarekin aurkez daitezke, horretarako nahiko botere emanda. Pertsona juridiko baten ordezkari izan bertako kideren batek jardungo balu, dokumentu bidez ziurtatu beharko du horretarako ahalmena duela. Kasu batean zein bestean, ordezkaria lehen adierazitako ezgaitasun-arrazoien eraginpean egongo da, kontratatzeari dagokionez.

Halaber, enpresariak ere, kontratuaren xede den jarduera edo zerbitzua burutzeko eskatzen den enpresa- edo lan-gaitasun frogatua izan beharko dute.

18. KONTRATUA GAUZATZEKO BEHARREZKOA DEN ENPRESA- EDO LANBIDE-GAITASUNA.

Erredakzio taldea diziplinartekoa izan beharko da derrigorrez eta, gutxienez, Baldintza Teknikoen Pleguko 4. atalean xedatzen den moduan osatuko da.

Lanak egiteari dagokionez bateraezina izango da pertsona bera enpresa esleipendunaren erredakzio taldeko kide izatea eta, aldi berean, Beasaingo Udalean hirigintza-aholkularitzako zerbitzua ematen aritea.

Halaber, bateraezina izango da Plan Orokorreko erredakzio taldea osatzen duten profesionalek Beasaingo Udaleko Administrazioaz aparteko beste erakunde batek agindutako lan partikular edo beharrezkoetan parte hartzea udalerrri horretan egiteko badira, pleguaren xede den plangintza idazten den bitartean eta hura behin betikoz onartu eta bi urte igaro arte, baldin eta lana egiteko esleipenduna badira.

Kaudimen finantzario edo ekonomikoa eta tekniko nahiz profesionala aurrerago adierazten moduan egiaztatuko da.

19. PROPOSAMENEN AURKEZPENA.

Kontratazio honetako espedientea eta hartara atxikitako pleguak eta dokumentazio teknikoa Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera iragarkia igortzen denetik eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte aztertu ahal izango da, Kontratazio Organoaren barneko kontratatzailearen profilean. Hartara jarraian adierazten den informatika-atari edo webgunearen bidez sartu ahal izango da: www.beasain.eus.

Proposamenak Udal erregistroan aurkeztuko dira (7:30-14:30 bitarteko ordutegian). Horretarako, 40 egun naturaleko epea izango da (azken eguna larunbata edo jaieguna bada, epea hurrengo astegunera arte luzatuko da), kontratuaren iragarkia Europako Batzordera bidaltzen den datatik zenbatzen hasita. Igorpen-data Estatuko Aldizkari Ofizialeko eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko iragarkian zehaztuko da.

Lizitatzailerik, hala badagokio, pleguei edo dokumentazio osagarriari buruz eskatutako informazio gehigarria proposamenak jasotzeko ezarritako epea baino sei (6) egun lehenago helaraziko da bitarteko elektronikoak erabiliz, betiere, eskaera, gutxienez, aurrez adierazitako proposamenak jasotzeko epea bete baino zortzi egun lehenago egiten bada.

SPKLTB-ko 158.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, pleguei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldez aurretik lanen eremuan bertan bisita egin behar bada edo pleguari erantsitako dokumentazioa "bertatik bertara" kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, eragindako hautagaiek eskaintza egiteko beharrezkoa duten informazioa jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Proposamenak jasotzeko ezarritako epearen ostean aurkeztutako proposamenak ez dira onartuak izango, epea amaitu aurretik Correosen entregatu zirela egiaztatu arren. Soilik onartuak izango dira Kontratazio Organoari telex, fax, telegrama edo posta elektronikoz helarazten bazaio eskaintzaren igorpen-dataren justifikazioa, postaz igorritako egun berean. Posta elektronikoz bidez iragarkia igortzean Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorreko 80.4. artikuluan haren baliozkotasunari buruz ezartzen dena bete beharko da.

Eskaintzak Udal Pliken Erregistroan aurkezterakoan, dagokion iragarkian ezarritako orria errespetatu beharko da.

Lizitatzailerik hiru gutun-azal itxi (A, B eta C) aurkeztu beharko dituzte, barnealdean horrela identifikatuta: "PROZEDURA IREKI BIDEZ BEASAINGO HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO ZERBITZUEN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA"

Halaber, gutun-azal bakoitzean lizitatzailerik identifikatzeko datuok agertu beharko dira:

BEASAINGO HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO ZERBITZUEN KONTRATAZIOA.

GUTUN-AZALA: adierazi, dagokion moduan, A, B edo C

DOKUMENTAZIOA: (dagokion atalean adierazitakoaren arabera dagokion izena adierazi).

Izen soziala:

Helbide soziala:

Pertsona ahalordedunaren izena:

komunikaziorako posta elektronikoa:

Harremanetarako telefonoa:

Faxa:

“A” gutun-azalaren azpiztitulua “DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA” izango da eta dokumentuok barneratuko dira:

- a) Parte hartzailearen edo bere ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- b) Lizitatzalea pertsona juridikoa denean, eraketaren edo aldaketaren eskritura aurkeztu beharko da, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, inskripzioa beharrezko litzatekeenean aplikagarri den merkataritza-legeriaren arabera. Hala izango ez balitz, jarduteko gaitasunaren egiaztapena, eraketa-eskritura edo -dokumentuaren bidez, estatutuen bidez edo fundazio-egintzaren bidez aurkeztuko litzateke. Bertan bere jarduera arautzeko arauak adierazi beharko dira, hala badagokio, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatuta ageri direnak. Europar Batasuneko Estatu kideetako enpresari ez espainiarren kasuan, erregistro profesional edo merkataritzako batean inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute dagokion Estatuko legeriak hala eskatzen duenean.
- c) Beste pertsona bat ordezkatzuz badihardu, fisiko nahiz juridikoa, nahikoa notario-ahalorde (dokumentuen aurkibide orrian ordezkaria ahalordetzeko eskriturak zein orritan agertzen diren adieraziz), jarduteko gaitasuna eraketa-eskritura bidez egiaztatu beharrik ez duten Elkarte eta bestelako erakundeak salbuetsita, horien kasuan Erakundearen dagozkion organoek, Estatutuen edo fundazio-egintzaren arabera, horretarako hartutako indarreko akordioen bidez egiaztatu ahal baitezakete ahalordetze hori.
- d) Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginaren 60. artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diolako aitorten sinatua, hala nola, indarrean dauden xedapenek ezartzen dituen zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituelako aitorten sinatua. Azken horiek aurkeztu beharko dira, bi horien gaineko ziurtagiria aurkeztu ezean. Horri dagokionez, aski izango da Pleguaren II. eranskin modura barneratzen den aitorten-eredua betetzearekin.
- e) Kaudimen finantzario edo ekonomikoa horrela egiaztatuko da: Arrisku profesionalen gaineko kalte-ordainen aseguru bat izatearen ziurtagiria izatea, 250.000 euroko balioa duena.
- f) Kaudimen tekniko edo profesionala:

Kontratazio honetan parte hartzeko gutxienez behar diren giza baliabideak hauek dira:

Taldeko Zuzendaria

Arkitekto-titulua duela egiaztatu beharko du.

Jarraian aipatzen diren lan moten artean, gutxienez bi (2) lan taldeko Zuzendari-arduradun modura burutu izana egiaztatu beharko du, plangintza orokorrarekin lotuta eta proposamenak aurkeztzen diren egunean behin betiko onarpena izanik:

- 7.000 biztanletik gorako udalerriari dagokion Hiri-antolamendurako Plan Orokorra.

- 7.000 biztanletik gorako udalerriari dagokion Arau Subsidiarioen berrikuspena.

Aholkularitza juridikoa

Zuzenbide Lizentziaturako tituluaren jabe dela egiaztatu beharko du.

Jarraian aipatzen diren lan moten artean, gutxienez bat (1) taldeko aholkulari juridiko modura burutu izana egiaztatu beharko du, plangintza orokorrarekin lotuta eta proposamenak aurkezten diren egunean behin betiko onarpena izanik:

- 7.000 biztanletik gorako udalerriari dagokion Hiri-antolamendurako Plan Orokorra.
- 7.000 biztanletik gorako udalerriari dagokion Arau Subsidiarioen berrikuspena.

Ingurumen arloko teknikaria

Ingurumen arloko ebaluazio estrategikoaren azterketa eta plan orokorra antolatzeke ingurumen alderdien aholkularitza metodologikoa egiteko, goi-mailako unibertsitate-titulua duen kide bat izan beharko du taldeak, ahal bada Biologian edo Nekazaritza edo Basogintza Ingeniaritzan espezializatutako pertsona bat. Halaber, enpresa profesional espezializatu batek ere egin ahal izango du lan hori.

Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria

Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniariaren titulua duela egiaztatu beharko du eta, era berean, hirigintza-plangintzan, urbanizazio-proiektuetan edota mugikortasun-ikerketetan esperientzia egiaztatu beharko du.

Topografiako teknikaria

Plan orokorreko dokumentua egiteko, goi-mailako edo maila ertaineko topografiako unibertsitate-titulua duen kide bat izan beharko du taldeak. Halaber, enpresa profesional espezializatu batek ere egin ahal izango du lan hori.

Teknikoa, gizarte izaerako betebeharrak betearazteaz arduratuko dena. Soziologia, antropologia.....espezialitatean titulua duela egiaztatu beharko du. Halaber, enpresa profesional espezializatu batek ere egin ahal izango du lan hori. Bi kasuetan hirigintza-plangintzan esperientziarekin.

Komunikazioko teknikaria, herritarren partaidetzarako lanak koordinatzeaz arduratuko dena. Halaber, enpresa profesional espezializatu batek ere egin ahal izango du lan hori. Bi kasuetan hirigintza-plangintzan esperientziarekin.

Baldintza horiek funtsezko kontratuzko betebeharrak izatera dute, beraz, SPKLTBko 56.2. artikuluan aurreikusten denaren arabera, baldintza horiek ez betetzea nahikoa arrazoi izango da kontratua eteteko 223.g artikuluan adierazten denez.

Gutxieneko kaudimena egiaztatzen ez duten proposamenak baztertu egingo dira automatikoki.

- g) Indarreko ziurtagiria Euskal Autonomia Erkidegoko, Gipuzkoako Foru Aldundiko edo Estatuaren erakunde baliokide baten Kontratisten Erregistroan aurkezteak ziurtagiri horretan dagoen dokumentazioa aurkeztea salbuetsiko du, betiere, dokumentu horiek espresuki agertzen badira ziurtagirian eta horien baliozkotasuna eta indarraldia adierazteko zinpeko aitortpena atxikita badago (aitorpen-eredua atxikitzen da III. eranskinean).

- h) Aldi Baterako Enpresa Elkartea eratuta, lizitaziora enpresari bat baino gehiago aurkeztuko balira, horietako bakoitzak bere ahalmena eta kaudimena egiaztatu beharko ditu aurreko puntuetan xedatutako moduan eta, halaber, Aldi baterako Enpresa Elkartea sortzeko konpromisoa erakutsi beharko dute esleipendun ateraz gero (eredua atxikitzen da V. eranskinean). Halaber, proposamenean adieraziko da AEEko kide bakoitzak beteko lukeen helburuaren zatia, guztien kaudimen-eskakizunak zehaztu eta egiaztatu eta eskubideak gauzatu eta kontratua amaitu arte bertatik eratortzen diren betebeharrak betetzeko nahikoa botere duen elkarteko ordezkari edo ahalduen bakarra izendatze aldera. Ez da beharrezkoa izango elkartze hori formalizatzea bere aldeko behin betiko esleipena eman arte.
- i) Atzerriko enpresek Espainiako edozein arlotako Epaitegi eta Auzitegi-tako araubideari jarraituko dietelako aitorpena aurkeztu beharko dute, kontratuaren ondorioz, zuzenean zein zeharka, sor daitezkeen arazoak konpontzeko, eta lizitatzailari legokiokoen atzerriko jurisdikzioari uko eginda, hala behar izanez gero. Enpresa horien kasuan, erregulazioa Plegu honetako VII. eranskinean barneratzen da.
- j) Enpresak helarazitako informazioak konfidentzialtzat jotzea. Beharrezkotzat jotzen bada, lizitatzailak aukera izango du, Eranskinean barneratzen den eredua aintzat hartuz, sekretu tekniko edo komertzialekin lotuta daudelako konfidentzialtzat jotzen dituen eskaintzako informazio eta alderdiak adierazteko (IV. eranskina).
- k) A gutun-azalean barneratzen diren dokumentu guztien aurkibide-orria.

Aurrez adierazitako dokumentuei dagokienez, jatorrizkoak aurkez daitezke edo fotokopia konpultsatu edo egiaztatuak aurkez daitezke; halaber, bitarteko elektronikoak erabiliz jasotako fotokopia sinpleak edo dokumentuak onartuko dira (dena den, fotokopia sinpleen kasuan, ezinbestekoa izango da behin-behineko esleipendunak jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatu edo egiaztatuak aurkeztea behin betiko esleipenaren aurretik), hurrengo dokumentuotan izan ezik, horien kasuan nahikoa gaitasun duen pertsonak behar bezala sinatutako jatorrizko dokumentuak aurkeztu beharko baitira kasu guztietan: d) hizkiko aitorpena; h) hizkiko konpromisoa; atzerrikoen enpresentzako i) hizkiko aitorpena; eta, baldin eta aurkezten bada, j) hizkiko aitorpena.

“B” gutun-azalaren azpititulua “MATEMATIKOKI ZENBATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA” izango da.

Lizitatzailak beren eskaintzen balioespen eta haztapenerako beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, Azalean ezartzen diren matematikoki zenbatu ezin diren eskaintzen balioespen-irizpideei buruzkoak.

Gutun-azal horretako edukia (Memoria-diagnosia, metodologia eta herritarren partaidetzarako proposamena), gainera, paperean eta formatu elektronikoan aurkeztu beharko da, eta gutun-azal berean sartuko dira biak.

Gutun-azal horretan ez da, inolaz ere, eskaintza ekonomikoa atxikiko, ezta eskaintza ekonomikoari dagozkion dokumentu adierazgarriak ere, eta matematikoki zenbatzeko irizpideei buruzko dokumenturik ere ez. Hemen xedatutakoa betetzen ez bada, eskaintza ukatu egingo da.

“C” gutun-azalaren azpititulua “MATEMATIKOKI ZENBATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA” izango da eta dokumentuok barneratuko dira:

1.- Plegu honetako I. eranskin modura barneratzen den ereduarekin bat datorren proposamen ekonomikoa. Proposamen bakarria sartuko da.

Proposamen ekonomikoa lizitatzailak sinatuta egon beharko da (AEE erako konpromisoa duten enpresa ugariren kasuan, ordezkari guztiek), eta hala ez badago, eskaintza ez da onartuko.

Kasu berezietan, plikak irekitzeko ekitaldi publikoan proposamena sinatuta ez dagoela ikusiko balitz, Mahaiak aukera izango du ekitaldi horretan sina dadila adosteko baldin eta bertaratuen artean sinatzea falta den pertsona egongo balitz. Horretarako, bere nortasuna modu frogagarrian egiaztatu beharko du.

Errekurtsoak jartzeko epea halakorik jarri gabe igarota, proposamenetan atxikitako dokumentazioa interesdunen eskuetan geratuko da. Kontratua formalizatu eta hiru hilabeteko epea igarota, Administrazioak aukera izango du lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa suntsitzeko horiek baztertu ez direnean, proposamen ekonomikoen kasuan izan ezik, horiek gorde egingo baitira kasu guztietan.

Administrazioak aukera izango du, esleipenaren aurretik nahiz ondoren eta kontratuak irauten duen bitartean, gutun-azal horietan barneratutako dokumentuetako edukiaren egiazkotasuna frogatzeko eta baita, hala badagokio, Azalean esleipen-irizpide modura adierazten direnak frogatzeko. Hala, enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak faltsuak badira, hala badagokio, kontratua bertan behera utzi ahal izango dela ulertzen da, kontratistari egotzi ahal zaion ez-betetzearen ondorioz. Kasu horretan, behin betiko bermea gal dezake edo, hala badagokio, haren balioa duen kalte-ordaina ordaindu beharko du bermea eratu ez bada edo eratzea eskatu ez bada. Gainera, Administrazioari ere kalte-ordaina ordaindu beharko zaio sorrarazitako kalte eta galerengatik, bahitutako bermearen zenbatekotik gorako kopuruan.

20. DOKUMENTUEN KALIFIKAZIOA. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA KONTRATAZIO MAHAIAREN JARDUNA

DOKUMENTUEN KALIFIKAZIOA.

Proposamenak aurkezteko epea igarota, Kontratazio Mahaiak garaiz eta formaz jasotako dokumentazioa ("A" gutun-azala) kalifikatuko du; horretarako, Herri Administrazioen Kontratuaren Legeko Araudi Orokorreko 81. artikuluan eta hurrengoetan adierazten den moduan jardungo du.

Honela osatuko da kontratazio mahaia:

- Alkatea
- Hirigintza Batzordeko Presidentea
- Udal aparejadorea.
- Kontu-hartzailea.
- Udal idazkaria.

Mahaiak aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akats edo ez aipatzerik hautemango balu, horiek konpontzeko eskatuko du. Lizitatzaillearen gaitasun eta kaudimenari buruzko oharra edo dokumentu osagarriak eskatu ahal izango dira. Horiek, Araudiko 22. artikuluan xedatzen denez, bost egun naturaleko epearen barnean aurkeztu beharko dira. Ohar edo informazio osagarriaren gaineko eskaera A gutun-azalean lizitatzailleak emandako helbide elektronikoan jakinaraziko du Mahaiak. Era berean, Kontratazio Organoaren iragarki-oholean eta kontratatzailearen profilean iragarriko da. Modu berean egingo du Mahaiak aurkeztutako dokumentazioan agertzen diren akats konpongarrien gaineko komunikazioa. Kasu horretan, lizitatzailleek hiru egun balioduneko epea izango dute hautemandako akatsak zuzendu edo konpontzeko.

Aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu eta, hala badagokio, hautemandako akatsak eta ez-aipatzeak konpondu ostean, Mahaiak plegu honetako 18. eta 19. klausuletan zehaztutako hautaketa-irizpidetara egokitzen diren enpresak hautatuko ditu, eta lizitazioan onartutako eta ukatutako enpresak zein diren jakinaraziko du, ukatzearen arrazoiak ere emanez.

B GUTUN-AZALA IREKITZEA

Jarraian, Kontratazio Mahaiak, Kontratatzaillearen Profilean argitaratutako data eta ordutan egiteko saio publikoan (egokitzen jotzen bada beste bitarteko batzuk ere erabili ahal izango dira),

onartutako lizitatzailleen “B” gutun-azalak, “MATEMATIKOKI ZENBATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA” izenekoak, ireki eta aztertuko ditu, eta egindakoa dokumentu bidez jasoko da.

Jarraian, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 150.2. artikulua aurreikusitakoaren arabera, Kontratazio Mahaiak “B” gutun-azalak adituen batzorde batera igortzea adostuko du, proposamenak matematikoki zenbatu ezin diren esleipen-irizpideei dagokienez aztertu eta txostena eman dadin.

C GUTUN-AZALA IREKITZEA

Behin formula bidez zenbatu ezin diren irizpideen ebaluazioa jaso eta horien gainean eskatutako txostena ezagututa, “MATEMATIKOKI ZENBATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA” izeneko “C” gutun-azala irekitzeko ekitaldi publikoa deituko da, matematikoki zenbatu daitezkeen proposamen ekonomikoak jasotzen dituen. Saio hori Udaletxean egingo da Kontratatzailearen Profilean argitaratutako data eta orduan, egokitzen joz gero beste bitarteko batzuk ere erabili ahal izango direlarik.

Ekitaldi publiko horretan Kontratazio Mahaiak, onartutako proposamenen kasuan, matematikoki zenbatu ezin diren esleipen-irizpideen ebaluazioaren emaitzak jakinaraziko ditu.

Jarraian “MATEMATIKOKI ZENBATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA” izeneko “C” gutun-azalak irekiko dira. Ez dira proposamenak onartuko baldin eta:

- Eskaintza aintzat hartzeko Administrazioaren arabera funtsezkoa dena argi jakitea eragozten duten kontradikzio, ez aipatze, akats edo zirriborrorik agertzen bada.
- Aztertu eta onartutako dokumentazioarekin bat ez badatoz.
- Lizitazioaren oinarriko aurrekontua gainditzen badute.
- Plegu honetako I. eranskin modura ezartzen den proposamen-eredua modu adierazgarrian aldatzen bada.
- Lizitatzailak ikusteko modukoa ez izatea eragiten duen akats edo funtsik gabetasuna dagoela aitortzen badu.

Bi egun balioduneko epea emango da, egindako ekitaldia igaro eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, bertaratuek ekitaldi horri buruz egokitzen jotzen dutena adieraz dezaten idatziz.

Kontratazio Mahaiak, egokitzen jotzen badu, formula bidez zenbatzeko irizpideen ebaluazioa egiteko txostena eskatu ahal izango du.

Kontratazio Mahaiak, ekitaldi ez publikoan, esleipen-proposamena egingo dio kontratazio organoari, behin eskaintzen ebaluazio orokorra burututa.

Esleipen-proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen Administrazioaren aurrean proposatutako lizitatzailleen alde. Haatik, kontratazio organoak proposamenaren arabera kontratua esleitzen ez duenean, erabaki hori arrazoitu egin beharko du.

21. ADITUEN BATZORDEA ERATZEA.

Batzordea pertsona hauek osatuko dute:

- Udal arkitektoa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza Zerbitzuko arkitekto funtzionarioa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza Zerbitzuko aholkularitza juridikoko funtzionarioa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zerbitzuko funtzionario teknikaria.

22. ESLEIPENA. FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK. KONTRATUA GAUZATZEN HASTEAN. ESLEIPENDUNEN BETEBEHARRAK.

Kontratazio Organoak eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailerak deituko du, HAMAR (10) EGUN BALIODUNEKO epearen barnean, eskaera jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, dokumentazio hau aurkeztu eta jarraian deskribatzen diren esku-hartzeak burutzeko:

1. Foru Ogasunak edota, hala badagokio, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziak igorritako ziurtagiri positiboa, zerga betebeharrak betetzen dituela egiaztatzekoa (ziurtagiriek sei hilabeteko baliotasuna dute igortzen diren unetik aurrera).
2. Gizarte Segurantzako edo, hala badagokio, dagokion Mutualitateko betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko ziurtagiri positiboa (ziurtagiriek sei hilabeteko baliotasuna dute igortzen diren unetik aurrera).
3. Uneko ekitaldiari dagokion alta edo Ekonomia Jardunen Gaietako Zergaren azken ordain-agiria, eta osagarri modura, zerga horren matrikulan baja eman ez izana adierazteko aitortpen sinatua eta, hala badagokio, salbuespen egoera adierazita (VI. eranskinean agertzen den ereduaren arabera).
4. Esleipenduna enpresarien aldi baterako elkarte izatekotan, elkartze horretako kide bakoitzak aipatutako ziurtagiri positiboak aurkeztu beharko ditu, Ekonomia Jardueren gainerako Zergari dagokion dokumentazioarekin batera.

Aurreko lerroaldetan xedatutakoa derrigorrezkoa izango da, baldin eta adierazten diren ziurtagiri eta dokumentazioa proposamenarekin batera aurkeztu ez badira, betiere, horiek indarrean egonik.

5. Zerga betebeharrei eta Gizarte Segurantzari dagozkien aitortpenak edo deklarazioen bat aurkezteko betebeharra ez duen lizitatzaileraren kasuan, hori egiaztatu egin beharko du Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorreko 15. artikuluan aurreikusitako aitortpen sinatuaren bidez.
6. Aurreko klausuletan aipatzen diren ziurtagiriak Kontratuen Legearen Araudi Orokorreko 15. artikuluan xedatutakoaren arabera igorri beharko dira eta, hala badagokio, bide elektronikotik igorri ahal izango zaizkio Kontratazio Organoari, horri dagokionez aplikagarri den indarreko araudiarekin bat etorriz.
7. Kontratua betetzeko hartzerak konprometitu den baliabideak dituela egiaztatzen duen dokumentazioa ematea gainerako dokumentazioarekin batera haren egiaztapena eskatu ez denean.
8. Plan Orokorreko erredakzio taldea osatzen duten profesionalen konpromisoa Beasaingo Udaleko Administrazioaz aparte beste erakunde batek agindutako lan partikular edo beharrezkoetan parte hartzeko bateraezintasun-araubide bat onartuz, udalerrian egiteko esku-hartzeetarako, pleguaren xede den plangintza idazten den bitartean eta hura behin betikoz onartu eta bi urte igaro arte, baldin eta lana egiteko esleipenduna badira.
9. Esleipenaren zenbatekoaren % 5aren behin betiko bermea eratzea (BEZ gabe) eta, hala badagokio, berme osagarria. Behin betiko bermea SPKLko Testu Bategineko 96. artikuluan aurreikusitako edozein modutan aurkeztu ahal izango da. Administrazioak abalen sinaduraren legitimazioa eskatzeko eskubidea izango du.

Enpresarien aldi baterako elkarteen kasuan, enpresa parte-hartzaileen izen sozialak eta IFK zenbakia zehaztu beharko dira. Halaber, bermeak AEE bidez edota enpresa partaide baten edo gehiagoren bidez eratu ahal izango da, betiere, orotara eskatzen den zenbatekora iristen bada eta aldi baterako elkarteko kide guztiak bermatzen baditu solidarioki.

Kontratua formalizatu aurretik, AEE formalizatzeko eskritura publikoa helarazi beharko da, bere IFK zenbakiarekin batera.

10. Esleipendunaren betebeharra izango da Aldizkari Ofizialetako publizitateko ofizialeko lizitazio gastuak ordaintzea (Udalak kobratzeko dagozkion dokumentuak dituenean).
11. A gutun-azalean barneratu ezean, Plegu honetako 19. klausulan aipatzen diren jatorrizko dokumentuak edo horien fotokopia konpultsatuak helaraztea.
12. Arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguruaren poliza, 250.000,00 eurokoa.

Eskatutakoa adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzailleak bere eskaintza baztertu duela ulertuko da. Kasu horretan hurrengo eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailari eskatuko zaio dokumentazio berdina.

SPKLko 155.2. artikuluan ezartzen duenaren arabera, kontratua betetzeari uko egiten bazaio edo prozedura bertan behera uzten bada, lizitazioak lizitatzaillei eragindako gastuen ordaina Administrazio honek ezarriko du, haiekin egon eta bakoitzaren justifikazioak entzun ondoren.

KONTRATUA ESLEITU ETA FORMALIZATZEA

